

COVID-19aren ondoriozko krisiari aurre egiteko neurri ekonomikoak eguneratzea

AENKOMERek, Arabako Merkataritza eta Zerbitzuetako enpresaburuek, COVID-19aren krisiari aurre egiteko hartutako neurri ekonomiko berrien berri eman nahi dizuegu.

✓ **Pertsona autonomoen jardura berraktibatzea**

Martxoaren 29ko lan-geldialdi berrian oro har aplikatu beharreko interpretazio-irizpideei buruzko agindu bat argitaratu du Osasun Ministerioak. Agindu horretan zehazten da geldiarazte hori ez zaiela norberaren konturako langileei aplikatuko. Hala, alarma-egoerari buruzko aurreko dekretuarekin eten ez ziren jardueretan jarduten duten autonomoek beren zerbitzuak normalean ematen jarrai dezakete.

Osasun Ministerioaren agindurako esteka:

<https://www.boe.es/boe/dias/2020/03/30/pdfs/BOE-A-2020-4196.pdf>

✓ **Bulego eta merkataritza-lokaletarako hipoteka-luzamendua**

Hipoteken ordainketa hiru hilabetez luzatzea autonomoen lokal eta bulegoetarako eta merkataritza-lokaletarako, sektoreak gehien eskatzen duen neurrietako bat izanik.



Arabako Merkataritza eta Zerbitzuetako Enpresariak
Empresarios y Empresarias de Comercio y Servicios de Álava

✓ **Gizarte Segurantzako ordainketak geroratzea ETEentzat eta autonomoentzat**

Langile autonomoen eta enpresa txiki eta ertainen kasuan, Gizarte Segurantzako kuotak ordaintzeko sei hilabetera arteko luzamendua; Gizarte Segurantzako zorrak ordaintzeko epea ekainaren 30era arte luzatzea; eta kuotak ordaintzeko epea martxoan lan egindako egunetan luzatzea, interesik gabe.

✓ **Pentsio-planen erabilgarritasuna, langabeziako edo negozioak ixteko kasuetan.**

Familiei likidezia emateko neurriak onartzen ditu Jaurlaritzak, eta, adibidez, langabezia-kasuetan edo negozioa ixten denean pentsio-planak erabiltzeko aukera ematen du.

6 hilabetez, martxoaren 14tik aurrera 3:

- Orain ABEEE baten eraginpean dagoelako
- Negozioa eteteagatik
- Aldez aurretik Gizarte Segurantzako erregimen batean sartuta egon diren eta osasun-krisialdiaren ondorioz jarduera utzi duten autonomoak.

✓ **Enpresa txiki eta ertainei, mikroETEEi eta autonomoei finantza-laguntza emateko programa**

Eusko Jaurlaritzak enpresa txiki eta ertainei, mikroETEEi eta autonomoei finantza-laguntza emateko programa aktibatzea onartu du, 500 milioi euroko balioarekin; 100.000 €arteko maileguak dira, % 0ko interes-tasarekin.

Eusko Jaurlaritzak hartutako erabakietarako esteka:

https://bideoak2.euskadi.eus/2020/03/31/news_61182/CG_31_de_marzo.pdf